

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2026ko apirilak 24 · 1393 zenbakia

APARRETAN HEGAN EGINEZ

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Amplia S.A. 2000111

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 10-3 ezk. Eibar
943 23 72 17 | 660 42 20 08
amaia@amaiaesnaolaodontologia.com

arat.
ARAT KLINIKAK IZARRA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4,
20600 Eibar
943 201 851
www.aratclinika.com

EIBAR HORTZ KLINIKAK
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
1975 2019

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 95 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implantek / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK.

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tinoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIAIRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Etxebarriata, 7-1. et. 943-702886

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 978 48 57 52
msf.albistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodriguez
Montero doktorea

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

SONRISALUD
ARTIFICIOS DENTALES ASABARRI

**Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak**

Toribio Etxebarria, 23 beheka, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez **Dr. Alejandro Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
500 Kolonjato etxea

- ENDOTERAPIA
- KIBRO LENTZAK
- Postura eta TERAPIAK
- K-Stretch + SUPLENTZIOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatua zkoa.

I. Ojanguren, 2 678 746 617

Jarrai iezaguzu!



BIDEOAK YouTuben ikusgai



www.etakitto.eu



Eguzkia, beroa... Horrekin lotzen dugu surfa normalean, baina uda giroan olatu txikiak egon ohi dira eta, hotz egin arren, Ander Alberdi eta Kepa Lores surfariak nahiago dute neguan etortzen diren olatu erraldoietan aritzea. Azken hilabeteetan asko gozatu dute eta denboraldia nolakoa den kontatu digute.

eta kitto!
euskarako elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte eta Naiara

Eснаоla

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Kepa Lores

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Berriz ere umeak haurreskolarik gabe

Gure artean inkesta txiki bat eginez, familiok bagenekien arazoa ez zela guztiz konponduko bi haurreskola berrien irekierarekin. Eskaera gehiago zeuden eskaintako plaza berriak baino eta taldean ez gaude Eibarko familia guztiak. Orduan, nola liteke, "familietikiko konpromiso handia" duen alkatetzak ez ikustea? Zergatik ez dira zenbakiak egiten holako proiektuak martxan jarri baino lehen?

Emaiza: Abendurako hitzemandako plazak maiatzan jarriko dira martxan eta 6 ume kanpo geratu dira.

Nire ustez, agian idealista hutsa naiz, zerbitzu publikoa eta unibertsa eskaintzen bada, danok izan beharko genuke aukera berberak. Hori ez da bermatzen Eibarren. Umea ikasturtea hasita sartu behar bada haurreskolan, seguraski ez du lekurik izango. Orduan, alkatetzaren kalkulu faltagatik, gurasook pentsatu behar dugu noiz jaioko den gure umea?

Datorren urteetara begira nahikoak izango dira ala ez? Egia esan, ez dakit. Ezinegona sortzen didana da erantzukizuna dutenek ere ez dakitela.

David Suárez de la Peña

Hortik esanak



Euskaraz alfabetatu gabeak gara asko eta asko herri honetan, eta, gainera, esango nuke adin guztietako jendea dagoela multzo horretan. Baita oinarritzko ikasketak ikastolan egin dituztenak ere. Ez da jende heldua soilik orrialde bat irakurtzeko edo idazteko gai ez dena.

Eta hori horrela dela ikusita, zer hizkuntza politika egiten du gure administrazioak? Egia da herri guztietan daudela udal liburutegiak eta hori ondo dago, baina eta zer esan administrazioak bere esku dituzten komunikabideei buruz, batez ere, telebistari buruz? Eta zer esan urteak joan eta urteak etorri filmak euskalduntzeari buruz? Eta, komunikabideak alde batera utzita, euskara ikasteko doakotasunari buruz? (A eta B1 bai, baina B2 ez edo C1 ez...) horrenbeste urte pasatu eta gero, oraindik ez dugu HHE euskaldunik (Helduen Hezkuntza). Hau da gure hizkuntza politika: zikoitza eta negargarria.

Eta euskalduna den proiektu berriren bat sortu eta landu nahi dutenei, adibidez, aldizkari bat edo egunkari bat edo beste proiekturen bat euskara jendartearen bultzatzeko? Laguntza eskasa edo deus ez, hori da gure Eusko Jaurlaritzak duen hizkuntza politika. Eta urteak joan, urteak etorri, ez da aldaketarik.

JEXUX ARRIZABALAGA, filosofoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POPOLO. → Ume berbetan, emakumeen organo genitala. "Hor, populua bistan, ee!"

PORLAN. → Gazteleraizko 'cemento'. Portland-etik. "Lehen dana berde-berdia zana, oin porlanez bete dabe".

POSPOLIN. → Galeperra, berba onomatopeikoa da. "Pospoliña dauka kaixolan, goizian goizago jaikitzeke".

Txiba txikia. Umeek eurek egiten zuteen. "Pospoliñakin jokuan egitten genduan eskolan". Emakumeen organo genitala. "Zer darabizu, baiña, pospoliña bistan dakazula!"

1966

Udal Liburutegi zaharrea bozkutzen

Eibarko lehen Udal Liburutegia 1907. urteko apirilaren 8an inauguratu zen, Plaza Berrian zegoen udaletxearen (Kontzeju Zaharra) beheko solairuan. 1961ean eraman zuten Untzagara, udaletxeko beheko solairura, eta han egon zen 1996ra arte. Plazaolaren argazki hau bertan egina da.



Farmaziak

BARIXAKUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 29
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
EGUENA 30
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Hortensia Cid Cristobo**. 80 urte. 2026-03-29.
- **Laura Crespo Prieto**. 2026-03-31.
- **Josefa Hernandez Baranda**. 87 urte. 2026-04-16.
- **Pedro Jose Agirreazaldegi Bereziartua**. 77 urte. 2026-04-16.
- **Juan Jose Urain Arrieta**. 90 urte. 2026-04-16.
- **Simon Etxaniz Urkiola**. 85 urte. 2026-04-17.
- **Ana Mari Oset Goñi**. 82 urte. 2026-04-17.



Kubara bidaltzeko oinarrizko produktuak bilduko dituzte zapatu goizean

S.H. Kubara eramateko oinarrizko produktuak bilduko ditu Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS) Eibarren bihar (zapatua, apirilak 25) goizean, 10:00etatik 14:00etara, Toribio Etxebarria kalean. Adierazi dutenez, "Kuba bizitzaren ari den egoera oso larria da: itzalaldiak eta erregaiaren eskasia ohiko errealitate bilakatu dira, eta eguneroko bizitzaren arlo guztiak kaltetzen ari dira: garraioa, elikagaiak zein ura eskuratzeko aukera, osasungintza eta hezkuntza, besteak beste. Iraultzaz

geroztik Amerikako Estatu Batuek Kubaren aurka izan duten politika isolazionista eta kriminalen ondorioa da, eta azken urteetan biziagotu egin du blokeoa Donald Trumpek, baita interbentzio militar baterako mehatxua handitu ere".

Egoera larriari aurre egiteko produktu zehatz batzuk bilduko dira, hain zuzen, material sanitarioa, higiene-materiala, garbitzeko materiala, elikadura-osagarriak zein elikagai ez-galkorrak, kirol-materiala, eta ikas-materiala.

Orbea kiroldegiko dutxak zabaldu dituzte, baina uraren temperatura doitzen ari dira

S.H. Hainbat egunetan itxita egon eta gero, Orbea kiroldegiko dutxak berriro zabaldu dituzte, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak baimena eman ondoren. Hala ere, kiroldegiko arduradunek ohartarazi dutenez, instalazioak ez daude oraindik erabat prest. Jakinarazi dutenez, uraren temperatura doitzen ari dira eta, horregatik,

erabiltzaileei kontuz ibiltzeko eskatu diete. Arazoa konpontzeko, uraren temperatura erregulatzeko nahasgailuak aldatzen dihardute aldagela guztietan. Lan horiek amaitu arte, ezingo da tenperatura behar bezala egonkortu, eta, ondorioz, egun batzuk beharko dira zerbitzua %100ean erabilgarri egon dadin.



Maddi Alberdik irabazi du Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria

S.H. Maddi Alberdi San Martin EHU-ko ikerlariak irabazi du Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria, feminismoari eta euskal nazionalismoari buruzko ikerketarekin. "Gatibutasunetik askapenera: Marcela Lagarderen feminismoa eta euskal emakume abertzaleen bizipenak elkarrizketan" izenburuko lanak Latinoamerikako feminismoaren erreferente nagusietako bat den Marcela Lagarderen kontzeptu analitikoak euskal testuingurura egokitzea ahalbidetuko du. Epaimahaiak nabarmendu duenez, "ikuspegi teoriko berritzaile" bat proposatu du horretarako, Marcela Lagarde etnologo eta antropologo mexikarraren kontzeptu analitikoak euskal testuingurura egokituta. Alberdi Gizarte Lanetan graduatua da, eta Subiranotasuna Europako Herrietan masterra egina du EHU. Aurkeztutako ikerlana egilearen doktorego-ikerketaren barruan kokatzen da.

Eusko Ikaskuntzak 6.000 euroko saria emango dio eta, gainera, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Genero Ikasketen eta Ikerketen Zentroan (CIEG) egoaldia egiteko aukera izango du.



Zabaldute 1963an jaiotakoen bazkarira joateko izen-ematea

S.H. 1963an Eibarren jaio zirenek bazkaria egingo dute urriaren 3an. Parte hartu nahi dutenek 95 euroko diru-sarrera egin beharko dute, Kutxaren ES29 2095 5035 -00-9126903863 kontu-zenbakian, izen-abizenak adierazita. Egitaraua hau izango da, gutxi gorabehera: 12:30etik aurrera hamaiketako, talde-argazkia, txikiteoa, bazkaria Arkupen, arratsaldean poteoa, eta jai-amaiera Tas-Tasen. Jatetxe-ko toki-muga dela eta (100 plaza), behin kupoa beteta itxiko da izen-ematea. Informazio gehiago nahi duenak 1963eibar2013@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Maiatzaren Lehenerako antolatu duen egitaraua aurkeztu du LAB sindikatuak

S.H. Aurten Eibarren izango da Maiatzaren Lehenerako LAB sindikatuak antolatutako egitaraua, eta horren aurkezpena aste honetan, martitzenean egin dute sindikatuko ordezkariak. Manifestazioa Untzagatik abiatuko da, 12:30ean, *Mi Langileok eragin* goiburupean, eta aldarri nagusiak hiru hauek izango dira: etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak, eta soldata eta pentsio duinak. Manifestazioa amaitu eta gero, ekitaldi

politikoa egingo da eta, ondoren, herri bazkaria (14:30ean Untzaga plazako arkupeetan). Aukera beganoa egongo da. Bazkalostea girotzeko, musika egongo da, Nibarren eskutik. Bazkarirako txartelak LAB sindikatuaren Eibarko, Bergarako eta Arrasateko egoitzetan erosi daitezke (10 euro gazte, langabetu eta prekarioek, 16 euro langileek). Antolatzaileek apirilaren 27a baino lehen erosteko dei egin dute.



EZ DIRA SOBERAKINAK, JANARIA DA!

AHOLKUAK

- Erosketak egin aurretik, asteko menua pentsatu.
- Kozinatzeke orduan zaindu zer kantitate erabiltzen duzun.
- Ez bete platera gehiegi, hobe gero gehiago hartzea.
- Ez eman lehenasuna janariaren itxurari
- Aprobetxatu beharreko janaria baldintza egokietan gorde, hozkailuan edo izozkailuan.
- Janari soberakinekin errezeta berriak egin.
- Olioa berrerabili, edota birziklatu; ez bota inoiz arraskatik behera.

Rexcatering

Zer da? Jantokietako soberakinak berreskuratu eta herritarren eskura jartzen ditu proiektuak.

Non daude makinak?

- Legarreko frontoia
- Erreal plaza
- Urki, 16 (arkupeetan)



DATUAK

- Euskadin pertsonako 111 kg janari alferrik galtzen da urtean.
- Guztira 244.362 tona janari urtean.
- Ikastetxeen kasuan, menuen %10 bota egiten da.





Eibarko EAJ-PNVk solasaldi zikloa antolatatu du, “gogoeta partekatua” sustatzeko

S.H. Ekimenaren bidez, alderdiak gertuko topaketak sustatu nahi ditu, gaurkotasun politikoa aztertzeke eta herritarrekin zuzeneko harremana indartzeko. Horrela, Joseba Diez Antxustegik, Eusko Legebiltzarrean EAJ-PNVko bozeramaile eta koordinatzaile eta Euskadi Buru Batzarreko ki-deak, apirilaren 16an Batzokian hitzaldia eman zuen. Jeltzaleek azaldu dutenez, “gertuko giroan gaurkotasun politikoa aztertzea eta alderdikide eta eibartar jarraitzaileekin zuzeneko elkarrizketa espazio bat sortzea” izan zen

asmoa. Aurrera begira, hainbat hitzordu iragarri dituzte. Maiatzaren 7an (eguna), Aitor Estebanek afiliatu eta jarraitzaileei zuzendutako solasaldia eskainiko du. Iñigo Urkullu lehendakari ohiak, bestetik, Coliseon, herritar guztiei zabalik egingo den ekitaldi batean hartuko du parte (maiatzaren 20an, eguaztenean izango da). Ondoren, hamaiketako eskainiko dute. Halaber, Mikel Jauregi Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren bisita ere aurreikusita dago (data zehazteke dago).

Lanean hasi dira auzozain berriak, “auzoetan segurtasuna indartzeko asmoz”

S.H. Udalak martxan jarri du auzozainen zerbitzu berria. Eibarko Udaltzaingoko agenteak dagoeneko hasi dira kaleetan patruilatzen, auzoetako “bizikidetzak, presentzia eta herritarren arreta” hobetzeko. Lau agentek dihardute horretan, Amaña-Legarre, Urki-Ipurua, Jardinetak-Ekialdea eta erdigunean, segurtasun-ere-

du “hurbilagoa eta egunerokoan presentetagoa” sendotzeko asmoz. Auzozainek oinez zein motorrez egingo dituzte patruilak, eta haien eginkizun nagusiak hauek dira: arazoak garaiz detektatzea, kolektibo zaurgarriari arreta ematea eta espazio publikoetako gabeziak identifikatzea. Bitartekaritza-lanak ere egingo dituzte.

Lourdes Iriondoren ipuin eta antzezlanak biltzen dituzten bi liburuki berri

S.H. Lourdes Iriondoren literatura lana berreskuratzen duten bi argitalpen berri (*Lourdes Iriondo. Ipuinak* eta *Lourdes Iriondo. Antzezlanak*) aurkeztu ditu aste honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aztarna argitaletxearekin eta lanaren egileak diren Lorea Jainaga Albizu eta Alexander Gurrutxaga Muxikarekin batera. Iriondoren literatura lana, 1973 eta 1982 artean argitaratua, sakabanatuta, katalogoz kanpo eta, neurri handi batean, publikoaren irispidetik kanpo zegoen. Egileen berbetan, “edizio hau osatzen duten bi liburukiek egoera hori irauli nahi dute, idazle eta kantari handiaren obra literarioa irakurleen eskura jarritz. Hain zuzen, Lourdes Iriondok haurrentzat eta gazteentzat argitaratu zituen ipuin eta antzezlan guztiak biltzen ditu edizio honek, baita argitaratu gabeko *Fabrika berria* antzezlan ere. Liburuok esker-emate bat dira sortzailearentzat, eta opari bat gaurko irakurleontzat”.



Berriz entzun dira Bigarren Errepublikako 'Ahotsa(k)' Untzagan

S.H. II. Errepublika oroitzeko Udaletik prestatu duten programazioaren baitan, aurreko astean estreinatu zuten *Ahotsa(k)*, Irene Hernandok sortu eta zuzendu duen ikuskizuna, eta harrera ezinhobeaz izan du taularatu den bi egunetan. Emakume eibartarrek lehenengoz bozkatu zuteneko Indalezio Ojangurenen argazki ezaguna oinarri duen lan horretan Eibarko artista ugari hartzen dute parte eta, aktoreekin batera, zuzeneko musika eta dantzak eskaintzen dituzte hainbat taldek: Irene Hernando (dramaturgia eta zuzendaritza), Andrea Covadonga, Irati Sampayo, Rita Martin eta Gorka Errasti (aktoreak), Quico Puges (musika), Xaxa, Os Galaicos eta Kezka dantza taldeak (koreografiak), Eibarko abesbatza ezberdinetatik etorritako emakumeak (ahotsak)...

Argazkiak: EIBARKO UDALA

Argazki gehiago: WWW.ETAKITTO.EUS



UDABERRI-UDAKO BIGARREN ESKUKO AZOKA

ERREBAL PLAZA, 10:00ETATIK 14:00ETARA

Erreserbatu mahai bat behar ez dituzun eta egoera onean dauden gauzak saltzeko. Eibarko elkarte, ikastetxe eta herritar guztiek har dezakete parte. Bi aukera: 1. Erreserbatu salmenta-postu bat (mahai bat) eta zerorrek saldu erabilirik zure gauzak. Nahitaezkoa da aurrez erreserba egitea.

2. Laga zure objektuak gordailu-salmentan (10 gehieneko) eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira salmentaz. Ezin dira eraman: arropa eta osagarriak, bolumen handiko altzariak... Egunean bertan eraman behar dira gauzak 9:00etatik 10:00etara.

MAIATZAK

9

EIBAR



Izen emateko epea **Apirilaren 27tik maiatzaren 6ra**

Ez dago izena eman beharrik. Oharrak: Bereziki udaberrri-udako urtaroei eta oporraldiei lotutako objektuak eramatea eskatzen da. Postuak banatzerakoan lehenatasuna emango zaiei baldintza hori betetzen dutenei.

TAILERRA: OSAGARRIAK ETA APAINGARRIAK MATERIAL BIRZIKLATUEKIN 11:30-14:00, ERREBAL PLAZA.

- Tailerra: 3-12 urteko haurrentzat (5 urtetik beherakoak heldu batez lagunduta).
- Iraupena 30 min. Bost txanda aukeran, 11:30etik 13:30era.
- Plaza mugatuak.
- Hartu zure txanda egun berean!



“Herritarrak aktibatzea izango da hurrengo erronka nagusia”

ANE LIZARRALDE • Euskaraz Primeran! egitasmoaren teknikaria



Euskaraz Primeran! egitasmoa 2015ean sortu zuen ...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzeko. Urte hauetan ehunka establezimendurekin egin du lan elkarteak, paisaia linguistikoa eta arreta euskalduntzeko. Aurrerapausoak nabariak izan arren, ohituretan eragitea da oraindik erronka nagusia. Ane Lizarralde teknikariak dio herritarren inplikazioa funtsezkoa dela euskararen erabileran jauzi kualitatiboa emateko.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Eibarren euskararen erabilera sustatzeko erreferentziatzeko egitasmoetako bat da Euskaraz Primeran!. Ia 10 urtik gorako ibilbidean, merkataritza eta ostalaritza arloetan eragin zuzena izan du, baina oraindik badira gainditu beharreko erronkak. Ane Lizarralde, ...eta kitto! Euskara Elkarteko kide eta egitasmoaren arduradunak, proiektuaren jatorria, garapena eta etorkizuneko bideak azaldu ditu.

Lehenik eta behin, aurkeztu zer den Euskaraz Primeran!, nondik datorren, zertarako sortu zen...

2015ean ...eta kitto! Euskara Elkartek herriko merkatarari eta ostalarien artean galdeketa sakona egin zuen, eta horren ondorioz konturatu ginen hutsune bat zegoela euskararen erabileran. Kontuan izan behar dugu ostalaritza eta merkataritza sektore estrategikoak direla herritarren eguneroko bizitzan eta harremanetan duten eraginagatik. Orduan esan genuen: “Hemen zerbait egin beharra daukagu”. Eibarko Udalarekin eta merkatarari zein ostalarien elkarteekin elkartu, eta hortik abiatu genuen Euskaraz Primeran! kanpaina, euren beharrei erantzuteko asmoz.

Nork hartzen du parte proiektuan?

2015ean hasi ginenean egindako galdetegiaren on-

dorioz, ostalari eta merkatarien establezimendueta-
ra jo genuen banan-banan, zein behar zituzten eta ekimen horretan parte hartu nahi zuten galdetzeko. 200dik gora establezimenduk egin zuten bat; gaur egun bikoiztu egin da kopuru hori. Ondoren, beste hausnarketa bat egin genuen, bakoitzaren beharrak sakonago ezagutzeko.

Zein behar identifikatu zenituzten?

Batez ere paisaia linguistikoa lantzeko beharra zegoela ikusi genuen. Ostalaritzan, adibidez, ardo-zerrendak, menuak edo eskaintzak euskaraz jartzeko beharra nabarmena zen, eta horretan laguntza eskaini genuen.

Bestalde, tabernetan jartzen den musikak ere eragin handia duela uste dugu: euskarazko musika entzuten bada, bezeroek ere euskaraz egiteko joera handiagoa izaten dute.

Merkataritzan ere antzeko egoera zegoen: merkealdietako kartelak edo eskaintza bereziak askotan gatzelaniaz bakarrik zeuden, eta gutxienez elebidunak izateko beharra ikusi genuen.

Proiektua jaiotzeko gaur egun arte, zer-nolako ekimenak egin dituzue?

Euskaraz Primeran!-en barruan, Udalarekin eta merkatarari zein ostalariekin hainbat ekimen egin ditugu.



Ane Lizarralde Euskaraz Primeran! egitasmoaren teknikaria. OIHANE ZABALA

Ostalaritzan, esaterako, mantelak banatu ditugu, euskarazko eskaintzen adibideekin (kafea, kafesnea, bokadilloak...). Azukreak eta serbilletak ere bai.

Data berezietan —Gabonak, San Andresak...— ateetan jartzeko oharrak prestatzen ditugu, ordutegi bereziak edo itxierak euskaraz adierazteko.

Bestalde, Gilda Lehiaketa ere nabarmendu behar da; arrakasta handia izaten du, eta herritarrek ohitura hartu dute parte hartzen duten tabernetan buelta bat egiteko. Giro polita sortu da, eta jendea oso aktibo dago.

Merkataritzan, berriz, neguko eta udako merkealdi azokan parte hartzen dugu, herritarrek erosketan ere euskara erabiltzera animatzeko. Jende asko hurbiltzen da, opariak banatzen ditugu eta zozketak egiten dira.

Nolako erantzuna izan du herrian egitasmoak?

Orokorrean, erantzuna ona izan da, eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen pozik gaude. Gainera, establezimenduen artean mailaketa desberdinak ezarri ditugu, bakoitzaren egoera eta konpromisoa islatzeko. Baina, kontziente gara oraindik ere asko dugula egiteko.

Zeintzuk dira gaur egun ikusten dituzun erronka nagusienak?

Herritarrek aktibatzea izango da hurrengo erronka nagusia eta lehenengo hitza euskaraz izatea. Hitz bakar batek dena alda dezake eta keinu txiki horrek ateak zabaltzen dizkio euskarari. Hortik aurrera, bakoitzak ikusiko du noraino iritsi daitekeen.

Galdeketa egin eta urte batzuk igaro ondoren, mailaketa sistema bat sortu genuen, egoera desberdinak bereizteko. Horretarako, Euskaraz Primeran!-en pegatina desberdinak ditugu: beltzak adierazten du lehenengo hitza euskaraz egingo dela; zilarrezkoak, paisaia linguistikoa elebiduna dela eta arreta euskaraz eman daitekeela; eta urrezkoak, zerbitzua erabat euskaraz dela. Egindako ahalegina eskertu eta aitortzeko gala eskaini genien dendariei iaz.

Pegatinak normalean establezimenduen atean jartzen dira, baina batzuetan barruan ere bai, barra inguruan edo mostradorean. Toki ikusgarriak bilatzen saiatu gara. Hala ere, badira zaharragoak diren pegatinak ere, eta horietan ere euskaraz egiteko aukera egoten da.



“Hitz bakar batek dena alda dezake; lehenengo hitza euskaraz izateak atak zabaltzen dizkio euskarari”

Egunerokoan, paisaia linguistikoa kontuan hartuta, zer egoera antzematen dituzue?

Askotan establezimendu batean sartzean atenditzen gaituen pertsonak ez dakiela pentsatzen badugu, joera dugu zuzenean gaztelaniaz hasteko; garrantzitsua da behintzat lehen hitz hori euskaraz izatea: “kaixo”, “egun on”... Gero jasotzen dugunarekin moldatuko gara, baina besteak euskaraz jarraitzen badu, are hobeto.

Aurreiritzi handia dago Eibarren jendeak ez dakielako euskaraz...

Jendeak badaki. Beste kontu bat da ez duela erabil-tzen. Egia da euskaldunontzat askotan nekeza dela, beti ari garelako bultzaka, baina lanketa horretan jarraitu behar dugu. Izan ere, askotan, erdaraz ari den bati euskaraz erantzuten badiozu, momentu batean euskarara aldatzen da, edo gutxienez zerbait euskaraz esaten hasten da.

Orokorrean, nolako feedback-a jaso duzue?

Merkatari eta ostalariak oso pozik daude. Alde bate-tik, askok esan digute pegatina jarri dutenetik jende gehiago hurbiltzen dela euskaraz eskatzera. Saiatu gara, gainera, langileek gutxienez oinarrizko euska-raz jakin dezaten.

Bestetik, merkatariak eskertu egiten dituzte itzul-pen zerbitzua eta bestelako euskarriak; ...eta kitto!-ren webgunean eskuragarri daude, eta behar izanez gero, doan eskaintzen ditugu.

Aurrera begira, zerbait berririk badator?

Bai, beste ekimen sendo batean gabilta lanean. Oraindik ezin dugu xehetasunik eman, baina datozen asteetan ikusiko da zertan ari garen, eta uste dugu herritarrei bereziki gustatuko zaiela.

Orain arte ostalari eta merkatarien langileei eman diegu garrantzia, baina oraingoan ekimena zabaldu egingo dugu. Herritarrek ere euren rola hartu behar dute eta esan: “Ni hasiko naiz euskaraz”. Denok izan behar gara pausoa ematen dugunak.

Azkenik, zein mezu helarazi nahi diezu herritarrei?

Euskara zaindu behar dugu, gure hizkuntza da-eta. Txikitatik zahartzarora arte euskararekin bizi behar dugu, eta eutsi egin behar diogu. Denon ardurak da; ezin dugu utzi beti batzuek bakarrik tira egitea. Benetan sinetsi behar dugu nahi duguna, eta horren alde jokatu. Gutxienez, lehenengo hitza euskaraz egin dezagun.



ILEAPAINDEGITIK INGENIARITZARAKO BIDERA: ARMERIA ESKOLAK ATEAK IREKITZEN DITU

Bi ikasleren esperientziek erakusten dute Lanbide Heziketak ez dituela ateara ixten, baizik eta etorkizun profesionalerako bide berriak irekitzen dituela. *"Aldaketek beldurra ematen dute, baina hobetzeko badira, aurrera."* Lanbide Heziketa gero eta aukera erakargarriagoa da, eta Armeria Eskola horren adibide garbia da.

Hori argi dute Naroa Isasmendik eta Iker Garciak. Naroaren kasua berezia da. Ileapaindegitik fabrikazio mekanikora egin du jauzia, lan baldintzak eta etorkizun aukerak hobetzeko asmoz. *"Aldaketa handia izan zen, baina gaur egun oso gustura nago erabakiarekin"*, dio. Diseinua ikasi ondoren, metrologiako espezializazioa egitea erabaki zuen, lan munduan aukera gehiago izateko.

Ikerrek, berriz, hasieratik zuen argi industria munduan aritu nahi zuela. Horregatik aukeratu zuen Lanbide Heziketa, bide praktikoa zelako. Armeria Eskolan erdi-maila eta goi-maila egin ondoren, unibertsitatera jauzi egin du, eta gaur egun ingeniartza ikasten ari da. *"Lanbide Heziketak oinarri praktikoa oso sendoa eman dit."* Bi ibilbideek erakusten dute LHK aukera errealeak eskaintzen dituela: lan mundura sartzeko, espezializatze edo unibertsitatera iristeko. Armeria Eskolak, gainera, bide horiek guztiak egiteko aukera eskaintzen du.

Ate irekiak: Apirilaren 29an

AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

 musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus

943702725

INSTAGRAM | FACEBOOK | YOUTUBE

 @eibarkomusikaeskola





MARINA PEROSANZ

Sarean harrapatuta

Instagramen sartu, storieak ikusi, scroll egin, like eman, scroll. TikTok-en sartu, scroll egin, like eman, scroll. Instagramen sartu, Reelak ikusi, scroll, like, scroll.

Instagram eta TikTok aipatu ditut Facebook, X edo edozein sare sozial aipa nezakeen moduan. Jokaera berdina guztietan. Eta gaizki dagoela jakin arren, zaila egiten zait honen kontra egitea. Armiarma-sare (sozial) batean harrapatuta nago eta armiarmak Algoritmo izena du, gaixoa ni!

Sarean harrapatuta nagoela, gertatzen zaizkidan gauza askotaz konturatzen naiz. Azkenaldian, ez naiz hain sortzailea, erraz galtzen dut arreta, gauzak ahazten ditut, hitzak trabatzen zaizkit... Tontoagoa sentitzen naiz. TikTok-eko bideo batean (nola ez) ikusi nuen garuna ez dela egun batetik bestera apurtzen, baizik eta eutsi egiten diola, moldatu egiten dela, zaratara ohitzen dela: gu geu menpeko garen zarata etengabera.

Imajinatu mahaian eseri eta etengabe jaten hasiko bagina. Plater bat bestearren atzean, beteta egon arren, jan eta jan, gozatu gabe, urdailari digestioa egiten utzi gabe. Kasu hipotetiko horretan, behintzat, botaka egin genezakeen. Informazioz gainezka gauden mundu honetan, ordea, ezin dugu botakarik egin. Ez bota, ez gorde. Iruditzen zaigu ikasten ari garela, baina distrakzio hutsa da. Ez gara gogoratzen kontsumitzen dugun eduki gehienaz; ez joan den astean ikusitako bideoaz, ezta hiru scroll lehenago ikusitakoaz ere.

Sukaldaritzako aholku bat. Finantzazko beste bat. Gerrari buruzko albiste bat. Bideo barregarri bat. Zarata, etengabeko zorabio-sentsazioa. Bideo azkarren plataforma hauetara sartzen naizenean, askotan gogaituta bukatzen dut. Ihesbide baten bila sartzen naiz, askotan beharrezkoa, entretenitzeko asmoz, eta bat-batean, denborak ihes egin eta hor barruan ordubete pasa dudala konturatzen naiz. Nolanahi ere, aplikazioa itxi orduko ez naiz ezertaz oroitzen.

Isiltasuna behar dugu ideiak antolatzen, konponbideak aurkitzeko, oroitzapenak sortzeko, ikasteko, gure erabakien kontrola berreskuratzeko. Baina ez diogu gure buruari uzten.

Aspertzera noala sentitzen dudanean, mugikorra hartu eta scrolling-aren gurpilean sartzen naiz. Noiztik ez zara aspertzen? Aspertzea garrantzitsua da, boteretsua da. Aspertzen zarenean denbora motelago pasatzen da. Aspertzea hain azkar doan mundu hau moteltzeko ahalmena da. Superboterea.

“Isiltasuna behar dugu ideiak antolatzen, konponbideak aurkitzeko... Baina ez diogu gure buruari uzten”



AURREKO SAIOAN

II. Errepublikaren garaian kokatu ginen, testuinguru eta Eibarren izan zuen eragina eta aldaketa nagusiak ezagutuz.

HURRENGO SAIOAN

Debabarrenean dauden beste herrialdeetako etxe eta elkarteak ezagutuko ditugu, herriz herri ibiliz eta haien errealitatea gertutik ikusiz.

ALBISTEAK

Kubara bidaltzeko oinarritzko produktuen bilketa egingo dute bihar, zapatua, eskualdeko zenbait herritan.

Aurten ere eskualde mailako manifestazioa antolatu du LAB sindikatuak Maiatzaren lehenean Eibarren. Ondoren herri bazkaria egingo dute.



Apir 24

MUSIK.	JANUS LESTER	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
TXAPEL.	FUTBOLIN TXAPELKETA	19:00	BELEKO (EIBAR)
DANTZ.	DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA	17:30 (ERMUA) 17:30 (EIBAR)	
PAILAZ.	ZERUA LAPURTU DUTE	17:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
HITZAL.	MUGIKORRA NOLA ERABILI	17:30	AITA AGIRRE (ELGOIBAR)
BINGO	BINGO MUSIKALA	20:30	ASIGOR (SORALUZE)
MUSIK.	JURGI EKIZA	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)
BERTS.	BERTSO SAIOA	20:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)
MUSIK.	MURSEGO SUKRAMARKUS	19:00	ZABIEL (MUTRIKU)
HITZAL.	BERANGOKOAK ASKE, ONGI ETORRIAK LIBRE	18:00	(MUTRIKU)
HITZAL.	SUIZIDIOA PREBENITU ETA OSASUN EMOZIONAL SANOA	18:00	KONTZEJUZARRA (MALLABIA)

Apir 25

IPUIN	SAGU IPUINA AMAIAPUINEK ESKUTIK	17:30	LIBURUTEGIA (ERMUA)
MAHAL.	AUTOGESTIOA, ETA MUSA SIKAPITALISMOAN	18:00	LOBIANO (ERMUA)
ELKART.	KUBARA BIDALTZEKO PRODUKTU BILKETA	10:00 10:00 10:00	ORBE (ERMUA) T. ETXEBARRIA (EIBAR) FORUEN PLAZA (DEBA)
IPUIN	ELEFANTE BITXI BAT	12:00	PORTALEA (EIBAR)
MUSIK.	XABIER DÍAZ & ADUFEIRAS DE SALITRE	19:00	COLISEO (EIBAR)
BERTS.	HERRIARTEKOA	18:00	ANTZOKIA (SORALUZE)
AZOKA	2. ESKUKO AZOKA	10:00	GOÑATI (MENDARO)
EGUN.	SORMEN EGUNA	17:00	GAZTETXEA (DEBA)
EGUN.	GAZTETXE EGUNA	12:00	HAINBAT TOKI (MUTRIKU)
JAIK.	SAN JURKI	11:00	HAINBAT TOKI (MALLABIA)

Apir 26

ZINEA	JONE, BATZUETAN	18:30	ESKOLA ARETOA (DEBA)
-------	------------------------	-------	----------------------

Errenta aitorpena euskaraz: pausoz pauso normalizaziorantz

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Aitorpena Internet bidez, telefonoz, banketxean edo aholkularitza baten bidez eginda ere, kasu guztietan euskaraz egiteko aukera dago, herritarrak aukeratzen duen kanala edozein dela ere. 2025eko errenta aitorpena aurkezteko epea zabalik dago jada, eta uztailaren 2ra arte luzatuko da, prozesua nahi den hizkuntzan egiteko aukera eskainiz.

Udaberriarekin batera, ohiko hitzordua bueltan da milaka herritarrentzat: errenta aitorpena. Zenbakiak, kenkariak eta epeak ez ezik, hizkuntza ere bada aukeratu beharreko elementua. Eta gero eta gehiago dira prozesu osoa euskaraz egitea erabakitzen dutenak.

2025eko kanpaina martxan da dagoeneko, eta uztailaren 2ra arte egongo da zabalik. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen prozesua hainbat bidetatik egin daiteke —Internet bidez, telefonoz, aurrez aurre edo aholkularitzen bidez—, eta kasu guztietan posible da euskara erabiltzea.

Eibarren, Eibarko Udalak eta Akebai ekimenak urteak daramatzate herritarrak Ogasunarekin euskaraz aritzera animatzen, “Ogasunarekin Euskaraz” kanpainaren bitartez. Mezua sinplea da, baina estrategikoa: administrazioarekiko harremanak ere euskaraz egin daitezke, eta egin behar dira.



Aukera badago, hautua falta da askotan

Gaur egun, teknikoki ez dago ia mugarik errenta aitorpena euskaraz egiteko. Internet bidez, plataforma euskaraz konfiguratu daiteke; telefonoz edo aurrez aurre, nahikoa da euskaraz artatua izan nahi dela esatea; eta banketxe edo aholkularitzetan ere gero eta ohikoagoa da zerbitzua euskaraz eskaintzea.

Hala ere, errealitatea konplexuagoa da. Askotan, herritar askok ulermena euskaraz izan arren, tramitea gaztelaniaz egiten dute. Arrazoiak ez dira teknikoak, ohiturazkoak baizik: segurtasun falta, ohitura zaharrak edo terminologia fiskalarekiko zalantzak izaten dira gehienetan.

Terminologia, beldur iturri

“Autolikidazioa”, “kenkaria”, “oinarri zergagarria” edo “atxikipena” bezalako terminoak gero eta zabalduago daude euskaraz, baina herritar askorentzat oraindik arrotzak dira. Horrek zalantza sortzen du,

eta zalantzak, askotan, hizkuntza hautuan eragiten du.

Horri aurre egiteko, azken urteetan baliabideak ugaritu dira. Besteak beste, UEMAk errenta aitortenaren hiztegia landu du, oinarriko kontzeptuak modu argian azaltzeko. Helburua ez da itzulpena eskaintzea soilik, baizik eta herritarrari segurtasuna ematea. Terminologiaren hiztegia, ikusgai dago interneten.

Datuak: pixkanakako gorakada

Eibarko datuek joera argia erakusten dute. 2018an, 1.402 herritarrek egin zuten errenta aitortpena euskaraz, guztizkoaren %10ek. 2024an, berriz, 1.838 izan ziren, %12ra iritsiz.

Hazkundera apala da, baina esanguratsua: gero eta gehiago dira lehen pausoa ematen dutenak. Gainera, aitortpenen kopuru orokorra ere handitu egin da urte horietan, 14.234tik 15.427ra.

Horrek erakusten du bi prozesu paralelo doazela: herritar gehiago ari dira aitortpena egiten, eta horietatik gero eta gehiagok euskaraz egitea hautatzen dute.

Errenta, ohiturak aldatzeko unea

Hizkuntza-eragileen arabera, errenta aitortenaren garaia une estrategikoa da. Urtean behin, herritar askok administrazioarekin harreman zuzena dute, eta horrek aukera ematen du ohiturak berrikusteko.



Errenta aitortenaren garaia une egokia da hizkuntza-ohiturak aldatzeko.

Askok lehen aldiz egiten dute aitortpena euskaraz kanpaina hauetan, eta esperientzia positiboa bada, hurrengo urteetan ere hautu hori errepikatzeko joera handitzen da. Horrela, pixkanaka, administrazioarekiko harremanetan euskararen presentzia sendotzen doa

Erronka bizirik dago

Aurrerapausoak egon arren, erronka ez da amaitu. Ohiturak aldatzea prozesu geldoa da, eta oraindik badira oztopo nabarmenak: hiztegi fiskalarekiko ziurgabetasuna, zerbitzuen eskaintza desorekatua edo inertzia administratiboa.

Hala ere, bidea markatuta dago. Aukerak badira, baliabideak ere gero eta gehiago, eta herritarren artean kontzientzia hazten ari da. Errenta aitortpena ez da betebeharriskal bat soilik: hizkuntza hautatzeko aukera ere bada. Eta, pixkanaka bada ere, gero eta gehiagok erabakitzen dute aukera hori euskararen alde egitea.

Herritarrek errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera dute, aukeratzen duten kanala edozein dela ere

Pixkanaka bada ere, gero eta herritar gehiagok euskararen aldeko hautua egiten dute

“Ez genuen gogoratzen horrelako negu bat orain dela urte askotatik, surf egiteko demasekoa izan da”

ANDER ALBERDI ETA KEPA LORES • Surfariak



Negua joan da eta, horrekin batera, olatu handiak. Ezusterik ezean, amaitu da olatu handietan trebatzen diren surfariek gehien maite duten sasoi, baina oso zapore gozoarekin agurtu dute. Hilabete hauetan aukera ugari izan dituzte, hemendik oso urrun joan gabe, uretako masa erraldoietan irristatu eta urak sortutako hodietan murgiltzeko.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **OIHANE ZABALA**

Ander Alberdi ‘Txintxe’ eta Kepa Lores uretatik kanpo aurkitu ditugu, baina ez uretatik oso urrun. Eibartarrak dira baina Deban elkartu gara eurekin eta, olatu txikiak egon arren, zeharretik begiratzen diote kostari. “Zerbait irte ten da, eh”, diote. Eskarmentu handiko bi surfari trebe hauek, neguko denboraldiak nola bizitzen dituzten azaldu digute, besteak beste.

Olatu handien sasoi amaitutzat eman dezakegunez, balantzea egingo dugu. Nolako izan da denboraldia?

KEPA: Aurreko urteekin alderatuz, ezberdina izan da. Udazkenean itsasoa nahiko geldirik egon zen, kaskar surferako, normalean sasoi onena izaten denean, baina gero itsaskiak (swell) etortzen hasi ziren, ia astero, eta demaseko negua izan da. Ez genuen gogoratzen horrelako negu bat orain dela urte askotatik.

Denboraldi honetako egun bat aukeratu beharko bazenute, zein izango litzateke?

KEPA: Martxoaren 2a dut gogoan, astelehena, Hossegoren (Landak, Frantzia). Demaseko olatuak zeuden. Horrelako egunetan olatuak hartzea zaila izaten da. Izan ere, uretan maila handiko jendea egoten da, lokal asko (tokiko surfariak), eta kanpotik goazenei ez digute

erraza jartzen olatuak hartzea, baina bat hartzea tokatu zitzaidan eta bizitzako olatua izan zen.

ANDER: Nik ez daukat hain memoria ona (barreak). Egundik asko egon dira, egun askotan egon garelako lagun artean, lasai, eta olatu handiekin, lau metro ingurukoak. Era berean, pena ere izan da bainu motelak izan direlako. Seguru Landetan gogoratzeko moduko bainuren bat ere eduki dudala, baina ez dut gogoratzen. KEPA: Txintxek ezin du aukeratu, egun on asko eduki ditu-eta (barreak).

Surfeko egun batek zer eduki behar du ona izateko?

KEPA: Faktore asko sartzen dira jokoan. Agian demaseko baldintzak ematen dira itsasoan (olatu handiak, haize ona...), perfektu egon daiteke, espektatiba handiekin zoaz, baina ez zaude itsasoarekin konektatuta, ez duzu tokia aurkitzen, huts egiten duzu. Eta zuretzat egun txarra izan dena beste batentzat demasekoa izan daiteke, oso ondo moldatu delako. Era berean, beste egun batzuetan ez daude oso olatu onak, baina zu txisparekin zaude eta oso olatu onak tokatzen zaizkizu. Guk asko baloratzen dugun gauza bat uretan lagun artean eta lasai egotea izaten da, eta aurten gertatu da oso bainu onak eduki ditugula eta lagun artean, jende gutxirekin. Giro lasaian zaude olatuak aukeratzeko, bata-besteari





Elkarrizketa osoa eta BIDEA



“Asko baloratzen dugun gauza bat izaten da uretan lagun artean eta lasai egotea”

“Mundaka eta Hossegor artean mugitzen gara normalean, kalitate handiko olatuak daude”

animatzen eta hori asko baloratzen dugu. Normalean ez da hori gertatzen, baina batzuetan zortea dago.

Nola bizi dituzue uretan olatuen zain egoten zareten momentu horiek?

ANDER: Olatu on gutxi datoz batzuetan eta olatu hori zuk hartzea nahi izaten duzu. Orduan, beti dago lehia txikia; baina lagun artean gaudenean, batek olatu asko hartu baditu eta beste batek olatu askorik hartu ez duela ikusten badu, normalean ondo moldatzen gara gure artean.

KEPA: Beste egun batzuetan, uretan jende gehiago egoten da eta tentsio uneak bizi daitezke. Azkenenean, olatu kopuru bat dago eta denok nahi ditugu olatu onenak hartu, baina beti ezin da.

Moduren batean esatearren, toki batzuetan ‘kanpotarrak’ izaten zarete. Nola jokatzin duzue horrelako egoeretan?

KEPA: Bainu asko hartzen ditugu etxetik kanpo. Adibidez, Landetan asko egoten gara. Horrelakoetan, uretan ahalik eta zarata gutxien egiten saiatzen gara, gure artean euskaraz ere ez dugu egiten bertakoek ez entzuteko... Gero eta arreta gutxiago eman, hobe, uretan tentsioa egoten da-eta.

ANDER: Egun horietan zaila izaten da olatu bakarra ere hartzea. Guretzat egunik onenak hodiak (tuboak) sortzen diren egunak izaten dira. Frantsesak oso onak

dira surfean, eta egun horietan ‘lokal’ asko egoten da uretan eta ez dute olatu askorik lagatzen. Beraz, tokia bilatzen ibili behar zara etxera saria eramateko eta ez da erraza izaten.

Landetara hainbeste joanda, tokitxo irabazi dezakezue bertakoen artean?

ANDER: Landetan olatu onak daudenean, ia goizero joaten gara bertara. Ezagun batzuk baditugu, baina ez dugu tokirik egin, egun onak daudenean ez baitugute olatu onak hartzen lagatzen.

KEPA: Zaila da tokia egitea hain maila ona dagoen tokian, are gehiago kanpoko bazara. Ez dugu tokirik egin, baina beti lortzen dugu, ezkutuan eta isil-isilik, olatu onen bat eramatea.

Surf egiteko olatuak agintzen dute eta kapritxosoak dira. Etorri daitezke ala ez, eta datozenean ere, tamaina, norabide, indar eta haize ezberdinarekin etorri daitezke. Nola bizi duzue olatuen parteei begiratzin ibiltzea?

ANDER: Normalean nahiko erraza izaten da kontu hori. Parteak egunero begiratzin ditugu eta egunetako aurrerapenarekin ikusten dugu itsasoa nola egon daitekeen, baina bi egun edo egun bat lehenago erabakitzen dugu, parte ikusita, zer egin dezakegun. Haizea, marea eta olatuen tamaina ikusi eta nora joango garen erabakitzen dugu.



Mundakako olatu famatuan trebezia handiarekin ibiltzen dira surflari eibartarrak.

KEPA: Iragarpenak iragarpen, itsasoa ez da inoiz zehatza eta tokatu izan zaigu toki batera joan eta ezer ez aurkitzea. Behin Anderrekin, goizeko 5:30ean jarri genuen alarma, 6:00etan bidean geunden, olatura iritsi ginen eta itsasoa bare-bare zegoen. Batzuetan bete-betean asmatzen dugu, baina beste batzuetan kale egiten dugu.

Horretan esperientziak lagunduko dizue, ezta?

ANDER: Tira, ez pentsa, aurtuen ere kale egin dugu egunen batean. Aurtengo zapatu batean urteko partetik onena ikusi genuen hemen surf egiteko. Kuadrilla eta familia osoa mugitu genuen, baina gero ezer ez, ez zegoen olaturik. Gutxienez, bazkaria egin eta egun polita pasa genuen.

Behintzat hemen inguruan zen, ez zineten Landetarraino joan ezertarako.

KEPA: Hossegoren tokatu izan zaigu mila buelta ematea eta azkenean goiza 'boulangerie'-an pasatzea 'pain au chocolat' jaten (barreak). Beste batzuetan iragarpena ez da hain ona izan, baina tokia ezagututa eta baldintzak ikusita, joan gara eta demaseko bainua tokatu zaigu.

Landak aipatu dituzue, baita inguru hauek ere. Nondik mugitzen zarete normalean?

ANDER: Mundaka eta Hossegoren artean mugitzen gara normalean.

KEPA: Ordubete Bizkairantz, ordubete Frantziarantz. Tartean kalitate handik olatuak daude.

Lagun artean mugitzen zarete? Eta, materiala eta surf egiteko behar den guztia eramateko, nola egiten duzue?

KEPA: Zorionez, denok dugu furgoneta, espazioa behar duzulako materiala eramateko. Ez dira berdinak izaten olatu txikietan, hodiak sortzen dituzten olatuetan edo olatu handietan erabiltzen ditugun oholak. Batzuetan bi bainu ematen ditugu eta neoprenozko trajeak sartzeko ere tokia behar da. Swell-a datorrenean, egun batzuetan olatu handiagoak egon daitezke, beste batzuetan txikiagoak, berriz igo daitezke... Orduan, material guztia furgonetan sartu eta egun guztietarako dena prest edukitzen duzu toki batetik bestera mugitu ahal izateko eta baldintza ezberdinetara moldatzeko. Gure filosofia hau da: itsasoa ondo badago, uretara. Izan ere, ez dakizu itsasoa noiz egongo den ondo berriz ere.

ANDER: Kepa, Iñaki (Zabala) eta hirurok beti egoten gara surferako prest. Surf-eskolan egiten dugu lan eta goizez libre edukitzen dugu. Beno, olatuak daudenean libre edukitzeko antolatzen gara (barreak). Gainera, eskolako monitoreak ere gurekin etortzen dira askotan eta surfeko kuadrillatxo bat ere badaukagu, 'Team Txarrua'. Denek ezin dute beti, baina gure artean moldatzen gara eta normalean beti dago norbait surfean aritzeko. Bakarrik gutxitan egiten dugu surf.



Serapio Paredero eta bere emazte Salvadora (behean, eskuineko bikotea), bere ezkontzako gonbidatu batzuekin. GIPIZKOAKO ARTXIBO OROKORRA. JUAN SAN MARTIN BILDUMA

Goizeko seiretan, lau bikote batera ezkondu ziren. Armozua hartu eta lehenengo trenean Donostiara joan ziren. Bertan hiru egun egin zituzten, eta handik Ordiziara (lehen Villafranca de Oria). Aratusteetan ezkontzeko ohitura zegoen.

Ezkontzak; lehenagoko ohiturak

Felisa Pascual Ucin
(1907 – 2002)



Ama Azpeitikoa. Aita Gasteiz ingurukoa. Azpeititik Bergarara joan ziren bizi izatera lehenengo eta, ondoren, Eibarrera. Felisa Barakaldo kalean jaio zen. Alhondigara joan zen hasierako ikasketak egitera. Umetan, antzerki eta dibujorako zaletasun handia zuen. Jacinto Olaberekin egin zituen bere marrazketa ikasketak. Gaztetan jostuna izandakoa. Republika sasoi eta Gerra Zibila bete-betean bizi izan zituen.

Felisa Pascuali grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Normalian, ze kolorekin ezkontzen zan?] Kolorezko... ni *azul marino* juan nintzan, ni josittakuakin, nik josittako arropia eruan neban (...). Goizeko seiretan. Lau pareja ezkondu giñan, bai? Eta bata, gaiñera, fabrikantia, eh! Fabrikantia. Zarrua. Juan giñan ta, lau pareja, hantxe, Ama Birjiña Dolorietakua dago han, elizan sartuta ezkertera, Jesukriston zeran, kajan daguan moduan? Hantxe. Lau parejak ezkondu giñan (...). Gu juan giñan kotxian, nere anaia zakin. Nere tio Julian zan horretan lehenetakua. Gero trenian. Armozua jan ta, lehelengo trenian, Donostiara (...). Gu egon giñan hiru egunian ta, gero, handik nora ta Villafrancara, oin Ordizia esaten detse baiña... Villafranca de Oria zan lehen. Han, Orian, nere gizonak arrebria ekan, ta arrebriak juateko ta juateko hara, eurenian egun batzuk egitteko. Baiña, zapatuan ezkondu (Karnabaletan ezkontzen zan orduan, generalmente), ta eguaztenian etxera. Ta, akabo! (...)



**NAROA GARCIA
JIMENEZ**

Eibar

Ikus-entzunezko
komunikazioa

3.maila

m
Mondragon
Unibertsitatea



Gure ikasleen ahotan

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 3. mailan zaude. Zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ikus-entzunezko Komunikazioa aukeratu nuen irudien bidez istorioak kontatzea gustatzen zaidalako, batez ere zinema. Sortzeko eta ideiak modu bisu-lean adierazteko aukera ematen dit. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere ikuspegi praktikoa eta talde-lanari ematen dion garrantziagatik. Gainera, irakasleak sektoreko profesionalak dira, eta horrek ikaskuntza errealista eskaintzen du.

Nolakoa izan da orain arte bizi

izan duzun esperientzia?

Esperientzia ez da erraza izan; zalantzak izan ditut eta karrera uztea ere pentsatu dut. Hala ere, tutoreen, familiaren eta lagunen laguntzari esker aurrera egin dut. Ikasi dut dena ez dela gustukoa izango, baina ahalegina egitea beharrezkoa dela.

Ikasteko zein metodologia erabiltzen duzue, oro har?


Metodologia praktikoa da. Talde-lan ugari egiten ditugu, eta lan praktikoen bidez ikasten dugu gehienbat. Azterketak ere badaude, baina proiektuek dute pisu handiena. Horrela, etengabe sortzen eta ikasten ari garela sentitzen dugu.

Orain praktikak egiten ari zara enpresa batean: nola bizi dituzu? Zer ekarpen egin dizute?

Praktikak Rippers Studion egin ditut, eta esperientzia oso ona izan da. Lankideekin asko ikasi dut eta lan egiteko modu profesionala ezagutu dut. Esperientzia aberasgarria izan da, bai maila profesionalen bai pertsonalean.

Eta, etorkizunari begira, zein asmo daukazu?

Etorkizuna oraindik ez daukat guztiz argi. Zinema da nire pasioa, baina beste arlo batzuk ere probatu nahi ditut. Kameraren aurrean lan egiteko aukera ere interesatzen zait. Gainera, Mexikora noa Erasmus programarekin. Momentuz, etorriko denari irekita nago.



EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA MINTEGIA

● Maiatzak 12, asteartea
📍 SD Eibar-eko prentsa aretoan

IZEN-EMATEA ZABALIK



- 08:45** Materiala jaso.
- 08:55** Ongietorria eta agurra.
- 09:15** **"Norantz doa euskara?"**.
Juanjo Allur eta Unai Oiartzun (SIADCO); eta Miren Segurola (UEMA).
- 10:05** **"Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian, oraina eta etorkizuna"**.
Agurne Gaubeka (Behatokia).
- 10:55** **"Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak"**.
Olatz Altuna (Soziolinguistikoko Klusterreko ikerlaria) eta Jaime Altuna (EHUko irakasle eta ikerlaria).
- 11:45** ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).
- 12:35** **MAHAINGURUA: Euskarazko eduki sortzaileak**.
Ana Goitia (kazetaria eta eduki sortzailea) eta Alex Etxegibel (eduki sortzailea).
Moderatzailea: Irati Alvarez (...eta kitto!).
- 13:25** Agurra.

eta kitto!
euskara elkarte



Etiketazko arropa eraldaketa sozialerako

Instagrameko kontua



Moda adierazpen modu bat da. Orokorrean, guk erabakitzen dugu zein arropa eta osagarri erosi eta zer jantzi. Gauza horietan asko pentsatu ala ez, garena edo erakutsi nahi duguna azaltzeko era bat da. Beraz, modak badu bere garrantzia, zentzu askotan. Debabarreneko gazte talde batek Etiketa Beltza marka sortu du, ez bakarrik euren gustuko arropa egiteko, baizik eta eraldaketa soziala bultzatzeko.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Hainbat lagunek osatzen dute Etiketa Beltza eta proiektuaren dinamizatzaileekin elkartu garen arren, taldearen izenean hitz egin digute egitasmoari buruz. Txontako lokal batean du egoitza proiektuak eta han batu gara eurekin. Sorkuntzarako toki, biltegi eta beste hainbat funtzio betetzen ditu, eta Beleko tabernan egindako lehen salmentan sortutako mural bat dute paretean, mezu ederrekin.

Etiketa Beltza, ostera, ez zen Txontan jaio, Debegesan baizik. “Eibarko Udalarekin eta Kalexa Elkartarekin elkarlanean, eta proiektuaren koordinatzailea izan zen Kutxa Fundazioaren laguntzari esker garatu da, ‘Erronka ekosozialeko aliantza’ proiektuen esparruan”, dinamizatzaileek kontatu digutenez. “Debegesarekin bi urteko proiektua abiatu genuen 16 eta 19 urte arteko gazteekin lan egiteko, batez ere Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutukoekin.



Ekimen ezberdinak egin genituen eta, proiektua amaitzear zenez, horri jarraipena emateko ideiak pentsatzen hasi ginen. Orduan, zenbait proiektu etorri zitzaizkigun burura ('Inor ez da ilegala' eta Bartzelonako 'Top manta' proiektuak, kasu) eta horrelako zerbait egitea pentsatu genuen".

Kontzientzia soziala abiapuntu

Gazteek oso ondo hartu zuten dinamizatzaileren proposamena eta joan den udan hasi ziren ideiak garatzen, baina gazteleraz esaten den bezala, ez da izan 'coser y cantar'. Formakuntza jaso zuten, eta ez bakarrik arropa nola egin eta marka bat nola eraiki ikasteko. "Hasieran, kontzientzia sozialari eman genion garrantzia", azpimarratzen dute dinamizatzailerek. "Zer gertatzen zaien galdetu genien. Izan ere, eurei askotan leporatzen zaie euren jokabidea gatazkatsua dela, besteak beste, baina askotan eurek jasotzen dutena ere biolentzia da: gorrotoa, eurengana hitz gogorrekin hurbiltzea... eta eurek berdin erantzuten dute. Askok hitz egin genuen horren inguruan: arrazismoa zer den, matxismoa, klasisismoa, zer esan nahi duen euretako batek modu batean janzteak eta txuri batek berdin janzteak... Ondo ulertu zuten zer zen gertatzen zitzaiena eta hori izan zen abiapuntua".

Hasierako pauso hori oso garrantzitsua izan zen proiektuarentzat. "Kontzientzia soziala landu gabe, ez luke zentzurik izango", euren ustez. "Gure helburua eraldaketa soziale-rako proiektua sortzea zen eta, batez ere, eraldaketa gazteen aldetik sortzea. Eta ez edozein gaztetatik,



Arropa sortzeaz gain, modelo lanak ere egin dituzte ekimeneko kideek. ETIKETA BELTZA

gazte hauen aldetik baizik, askotan gatazkatsu esaten zaien horietatik".

Batzen gaituen marka

Proiektuan parte hartzen duten gazte gehienak arrazializatuak dira. "Hemen jaiotakoak, baina azal-kolore ezberdinarekin edo ez dakit nolako izenarekin, eta horrela sortzen dira aipatutako biolentzia-prozesu horiek, bazterkeria, estigmatizazioa eta horrek dakartzan arazo guztiak", dioskue. "Arrazializatu ez gain, txuriak ere badaude taldean, baina beste

biolentzia-mota batzuk jasaten dituzte: bazterkeria ekonomikoa eta soziala, adibidez. Beraz, proiektua ez dago tipologia batean zentratuta, irekia izan da".

Gizarteak, askotan, etiketa jakin batzuen azpian kokatzen ditu gazte hauek eta, hain zuzen ere, hortik etorri ziren proiektuaren izenaren ideia eta leloa: 'Etiketa Beltza', 'Hemen jaioa'. "Normalean, luxuzko objektu eta produktuak lotzen dira etiketa beltzarekin, baina pertsoneri buruz ari garenean, 'beltza' berba mespre-



Modaz haratago doan proiektua da Etiketa Beltza. ETIKETA BELTZA

txuz erabiltzen da. Horrekin jolastu nahi genuen. Bestalde, gazte hauei beti jartzen zaizkien etiketak agerian laga nahi genituen, ez zaielako gazte bezala ikusten, baizik eta 'morroa', 'latinoa', 'gatazkatsua'... bezala. Orduan, geure buruari etiketa guk geuk jartzea erabaki dugu”, dioskue izenari buruz. “Eta ‘Hemen jaioa’ leloari dagokionez, kolore bat edo beste izan, guztiok barne hartzen gaituelako zerbait delako gustatu zitzaigun. Denok batzen gaituen marka sortu nahi izan dugu”.

Hiru bilduma

Proiektuaren dinamizatzaileak gazteen lagun bihurtu dira, baina hori guztia aurrera ateratzeko lana serio egin behar izaten dute eta gazteek ondo erantzuten dute. “Euretako askorentzat lehen bizipena da lokal bat edukitzen, horrelako proiektu bat sortzen, horrek duen ardurarekin...”, dioskue.

Izan ere, gazteak arduratu dira arropa sortzeko prozesu osoaz. Eu-

rek egin dituzte diseinuak, erabaki dute zein produktu egin, zein kolore erabili...

Horrela, euren gustuko marka eta produktuak sortu dituzte. “Hiru bilduma sortu ditugu kamisetekin, jertseekin, gerriko poltsekin...”, dioskue. Hauek dira bildumak: “Bazterrak”, sistematik at dauden kolektiboak biltzen dituena; ‘Aske’, Palestina babesteko; eta ‘Bideak’, migrazioaren bideen erakusgarri”. Gainera, produktuen kalitateari ere asko begiratu diote, ez zutelako edonolako zerbait egin nahi.

Irabazi asmorik gabe

Beleko tabernan egin zuten lehen salmenta martxoan eta oso harrera ona eduki zuen. “Lagun asko etorri ziren, baina baita proiektua ezagutzeko eta arropak erosteko gogoazuen jende asko ere”, euren berbetan. Gainera, proiektuko kideentzat oso egun zirrargarria izan zen eta egun horretan beste hiru lagun batu ziren proiektura. Horrela, 35



lagun inguruk osatzen dute taldea gaur egun.

Proiektua lantzen hasi zirenek horren berri eman dute euren inguruan eta lagun gehiago joan dira batzen. “Hasieran eskolako ikasleak etortzen ziren, baina zabaldu egin zen eta lagunik ez duen norbait etorri da, edo planik ez zuen norbait... Hori ere bazen helburuetako bat: talde-iraunkortasuna eskaintzea. Izan ere, parte hartze duten askok ez dute sozializatzeko talderik edo lagunik”, kontatu digute.

Taldearen indarra ezinbestekoa izango da proiektuak aurrera egiteko eta, talde izaera sustatzeko, irteeraren bat egiteko asmoa dute. Horretarako erabili nahi dute salmentekin irabazitako dirua, irabazi asmorik gabeko proiektua delako.

Maiatzaren 17an, Beleko tabernan egongo dira berriz ere produktuak saltzen, eta Txontan eta herriko beste hainbat gunetan ekintzak egin nahi dituzte. Euren sare sozialetara adi egon: @etiketabeltza.

Gaur zabaldu da Altxorraren Bila ekintzan parte hartzeko epea

...eta kitto! Euskara Elkarteak “Altxorraren Bila” antolatuko du maiatzaren 22an, barixakua. Gaur bertan zabaldu da izen-ematea eta maiatzaren 15era arte egongo da horretarako aukera. 4tik 10 urtera arteko umeek har dezakete parte, helduek lagunduta. Taldekideak familia berekoak, kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke eta helduetako batek, gutxienez, ahozko zein idatzizko euskara ulertu beharko du. Taldeak, asko jota, hamar kidez osatuko dira.

Jolasa Errebalean hasiko da, 17:30ean. Bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran ume guztiek jasoko dute saria. Izena emateko hainbat modu daude: 943200918



telefono zenbakira deituta, elkar-
tea@etakitto.eus helbidera mezua
bidalita edo ondoan duzen QR-an
azalduko zaizuen inprimakia betez.



Barixakuak Jolasian herriko auzoetara itzuli da

Txaltxa Zelain ekin zion ikasturteko azkeneko txanpari Barixakuak Jolasian ekimenak. Gaur, barixakua, Torrekuako parkeak hartuko dio txanda eta 17:00etatik 18:00etara jolasak egingo dira 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat, doan. Ikasturteko azkeneko saioa maiatzaren 8an egingo da, Urkizuko parkean.



Katixa Agirre izan da “Idazlearekin Harixa Emoten” saioan

“Berrizentauro” liburuarekin izan zen martitzenean Eibarren Katixa Agirre idazlea “Harixa Emoten” saioan. Idazle gasteiztarra euskarazko irakurle-taldeko kideekin elkartu zen eta aukera izan zuten liburuari buruzko galderak eta iruzkinak egiteko. Maiatzean agur esango dio taldeak ikasturteari “Horma” liburuarekin. Marlen Haushoferrek idatzi eta Naroa Zubillagak euskarara itzulitako liburua izango da azkena.



Lehen Mailara igotzeko ametsari eutsi nahi dio gaur SD Eibar-ek

E.B. 2025a jaitsiera postuetara begira amaitu ondoren, Lehen Mailara igotzeko amets gozoak dituzte gaur egun SD Eibar taldearen jokalariei eta zaleek. 2026. urtea hasi zenetik bi partidurik ez ditu galdu Beñat San Josek zuzentzen duen taldeak eta play-off postuak bi puntura ditu orain, liga amaitzeko zortzi partida falta direnean (igoera zuzena ematen duen 2. postua ere ez dago urruti, sei puntura).

Joan den domekan SD Huesca izan zuten arerio eibartarrek eta, sufritu arren, 2-1 irabazi zuten. Beraz, ilusioz beteta egingo diote aurre gaur, 20:30ean, Albaceten jokatuko duten partiduari.

Gaztela-Mantxako taldea sailkapenaren erdialdean dago kokatuta, ez aurrera ez atzera, eta ia ez Eibarren jokatu zuen Antonio Puertas aurrelaria baja izango dela jakinarazi du aste honetan.

Elgetako Sebas Aranzabal nagusi Lasturko tiraldian

E.B. Joan den zapatuan, Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketaren 5. jardunaldia jokatu zen Lasturren eta Elgetako Sebas Aranzabal izan zen garaile hiru txirlorrek. Txirlo kopuru berarekin amaitu zuten Iker Izagirrek (San Migel) eta Javi Martinok (Ezoz), eta Asola Berri taldeko Gari Rodriguezek bi lortu zituen, 4. postuan amaituz.

Aipatzekoa da Asola Berriko Enara Montielek egiten diharduen lana, emakumezkoen mailako liderra baita alde nabarmenarekin.

Hurrengo jardunaldia Ezozin jokatuko da, bihar, 17:00etan.



SD Eibar-ek salbazioa ziurtatu nahi du Levante azken sailkatuaren aurka

E.B. Hiru asteko geldialdiaren ondoren, F Liga martxan da berriro. SD Eibar-ek atsedena hartzeko eta indarberritzeko aukera izan du denbora horretan, oraindik ez baitu ziurtatu hurrengo denboraldian maila gorenean jarraituko duenik, lehen itzuli bikainaren ondoren salbazioa eskura duen arren.

Liga amaitzeko bost jardunaldien faltan, eta azken hamar partiduetan puntu bakarria eskuratuta (azkeneko partiduan Tenerife aurreratu

ka berdindu zuen), eibartarrek berderatzi puntura dituzte jaitsiera postuak. Beraz, lasaitasunaren puntuen bila irtengo dira bihar, 16:00etan, Ipurua zelaira, azken sailkatua den Levanteren aurka.

Zaleen babesaren ezinbestekoa izango da neurketa horretan eta SD Eibar-ek zaleak erakarri nahi ditu. Horretarako, Orsaixan dendan sarrerak erosi ahal izango dira 10 eurotan helduentzat eta 5 eurotan umeentzat.



Usoa Ostolaza Eibarko Hiria Sari Nagusian irabazle, Ixuan gora erasoa jo ondoren

E.B. Ikusgarria izan zen aurreko domekan jokatu zen Eibarko Hiria Sari Nagusia. Lasterketak maila handiko lehia eskaini zuen, eta garaipena Usoa Ostolazak eskuratu zuen, Ixuan ihes egin ondoren. Hasiera batean, Maite Urteaga zumaiarrak erasoari eutsi zion, baina gailurrera iritsi baino kilometro lehenago Ostolazak erritmoa estutu egin zuen eta bakarrik pasa zen Ixua gainetik. Toribio Etxebarriako helmugara ere lehenengo postuan iritsi zen.

Kadeteen lasterketa domekan

Domeka honetan jokatu da Eibarko Txirrindulari Elkartearen urteko hirugarren proba, hain zuzen ere bere izena daramana: Eibarko Txirrindulari Elkartea Saria. Kadete mailako txirrindulariek hartuko dute parte bertan, bere 11. edizioan.

Lasterketa 10:15ean hasiko da, Toribio Etxebarria kaletik, eta txirrindulariek 65,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute.

Xania Taberna da Kopako lider berria

E.B. Asteburu honetako jardunaldiaren ostean, are gehiago estutu da futbol zaletuko Kopa txapelketaren sailkapena.

Bergara Pneumatikoak taldeak huts egin zuen Adahi Etxegiren aurka 0-3 galduta eta Xania Tabernak aurrea hartu dio sailkapenean Baserri 0-7 irabazi ondoren. Zortzi punturekin daude talde biak eta zortzi ditu baita Kalaka Buenos Aires taldeak ere (partidu bat gehiago jokatuta).

Euren atzetik Bar Marem eta Garajes Garcia datoz sei punturekin. Beraz, Kopako lehen fasea amaitzeko bi edo hiru partidaren faltan dena dago erabakitzeko oraindik.

SAILKAPENA

1. Xania Taberna, 8 puntu
2. Bergara Pneumatikoak, 8 puntu
3. Kalaka Buenos Aires, 8 puntu
4. Bar Marem, 6 puntu
5. Garajes Garcia, 6 puntu
6. Malape Taberna, 5 puntu
7. Adahi Etxegi, 4 puntu
8. Limpiezas Rueda, 3 puntu
9. Baserri, 0 puntu

errenta
aitorpena?

euskaraz!

zelan?

- autolikidazioan

euskaraz egin nahi duzula esan

- mekanizatuan

ordua hartzerakoan, eta aitortpena egiterakoan, euskaraz egin nahi duzula esan

- internet bidez

errenta programaren euskarazko bertsioa deskargatu





Deporreko atletak parte-hartze nabarmena izan dute Gipuzkoako Txapelketan

E.B. Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldeko zenbait atleta Gipuzkoako Txapelketa lehiatzen izan ziren zapatuan, Arrasaten. Eibartarrek oso lan txukuna egin zuten, lau domina, ohorezko postuak eta marka hobekuntzak lorteko.

Anwar El Hassouni Benaissak urrezko domina eskuratu zuen 23 urte azpikoen 1.500 m-ko proban, emaitzarik aipagarriena lortuz. Zilarrezko dominak lortu zituzten, bestalde, Sonia Mendy Gomisek 16 urte azpikoen pisu jaurtiketan, Maialen Cenarruzabeitia Gallastegik 18 urte azpikoen proba berean eta Asier Andreu Valerak 18 urte azpikoen 400 metroetan. Hiru euren markarik onenak hobetu zituzten.

Dominarik gabe, baina ohorezko postuekin eta marka hobekin itzuli ziren Elene Beitia Azkoitia (4. izan zen 18 urte azpikoen 100 eta 400 m-tan, bere marka onenak lortuz), Unai Alvarez Solana (4. izan zen 16 urte azpikoen 100 m-tan eta bere marka onena lortu zuen), Naia Astigarraga Berasaluze (16 urte azpikoen 100 m-tan eta

luzera jautsian bere markak hobetu zituen), Naia Capelastegui Camiño (18 urte azpikoen 100 eta 200 m-tan bere marka hobetu zuen), Ixone Bilbao Gonzalez (18 urte azpikoen 100 eta 200 m-tan bere marka hobetu zuen), Nerea Aizpuru Boyer (18 urte azpikoen 100 eta 200 m-tan bere marka hobetu zuen), Farah Chajrane Bahassou (100 eta 200 m-tan bere marka hobetu zuen) eta Dennis Marquez Fernandez (18 urte azpikoen 100 m-tan bere marka onena hobetu zuen).

Lan ona egin zuten 16 urte azpiko kategorian Malen Anderetz Aristik (100 m eta 300 m-tan lehiatuz) eta Oier Acha Valdemorosek ere (bere lehen partaidetzan 100 m-tan).

Eskolarteko Txapelketa martxan Domekan, 2026ko Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa hasi zen Irunen eta bertan izan ziren Deporreko Atletismo Eskolako ordezkari gazteak: Lucia Arkotxa Larrarte, Isabel Pita Lozano, Luke Litago Lasuen, Danel Zubia Cano, Markel Urain Sanz, Maddi Perez Abanos Larrea-tegi eta Lucia Calvo Grande.

Xakelariak atsedenik gabe Aste Santuan

E.B. Aste Santuan ez da atsedenik izan Eibarko Klub Deportiboko xake jokalarientzat eta zenbait txapelketatan izan dira lehiak. Urruti joan gabe, Eibarko Hezkuntza Esparruan, Euskadiko Promesa Mailako Txapelketa jokatu zen eta bertan izan ziren Mikel Saenz, Kilian Simon eta Yeray Fernandez. Mikelek 4 puntu eta 18. postua lortu zuen, Yerayk 4 puntu eta 22. postua eta Kilianek 0 puntu eta 46. postua.

Alex Aranzabal xakelaria, bestalde, XLVI. Donostiko Nazioarteko Txapelketan izan zen. Eibartarrak 33. postuan amaitu zuen 5,5 punturekin eta 2.100 puntutik beherako jokalarientzako saria lortu zuen.



Zilarrezko Koparen finala jokatu du ERT-k

E.B. Eibar Rugby Taldeak maiatzaren 2an jokatu du finala, Leganesen. Barcelona Universitari Club (BUC) izango du arerio eta denboraldi gorabeheratsuari amaiera bikaina jartzeko aukera izango da.

Eibartarrek Atletico Portuenseraren aurka jokatu zituzten finalerdiak eta, kanpoan jokatu ere, erabat nagusi izan ziren, 5-22 irabazita. Orain, Universitario Bilbaori 12-32 irabaziz BUC izango du etsai denboraldiko azken partidaren.



Northfit Hybrid HK Eibar jokatuko da bihar, crossfita eta herri kirolak uztartuz

E.B. Northfit Hybrid HK Eibar txapelketa jokatuko da bihar Untzagan, 10:00etatik 15:30era. CrossFit-ean egiten diren ariketak eta herri-kiroletako proba batzuk uztartzen dituen lehia izango da, guztira 120 atleta inguru arituko dira eta.

Parte-hartzaileek zortzi minutuko sei proba egin beharko dituzte. “Proba bakoitza korrika egiten hasiko dira, Untzagatik San Andres elizaraino eta buelta, eta gero ariketa-saioa hasiko dute”, diote antolatzaileek. Ariketa-saio bakoitzean bi ariketa fisiko egingo dira, oinarrizko fitness funtzionala eta herri-kiroletako oinarrizko ariketak landuz.

Lehia multzoka egingo da, guztira hiru izango direlarik: bikote mistoa; bi emakume eta gizon batek

osatutako hirukotea; eta emakume batek eta gizon bik osatutakoa.

Oso ikusgarria

Ekintza ikusgarria izango dela esan dute antolatzaileek eta, are ikusgarriagoa egiteko, musikarekin eta esatari baten berbeekin girotuko dute goiza.

Aurtengoa ekitaldi askoren lehenazatea espero dute antolatzaileek. “Irunen Northfit-en bost edizio egin ditugu eta Zarautzen lau, eta 700 atleta inguruk hartu izan dute parte proba bakoitzean. Txapelketa hauek CrossFit-ean zentratzen dira gehiago, baina Donostiko Belodromoan egin genuen CrossFit-a eta herri-kirolak uztartzen dituen lehiaketa. Orain, lehen aldiz, aire librean egingo dugu Eibarren”, dio bikoteak.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Levante (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Albacete - EIBAR (gaur, 20:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Leon - EIBAR B (etzi, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Ejea - EIBAR B (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Deusto (etzi, 16:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Athletic - EIBAR (bihar, 16:30)

Jubenilen Liga Nazionala (gi)

EIBAR - Hernani (etzi, 11:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Oiartzun (bihar, 12:35)

FUTBOL-ZALETUA

- Baserri - Bar Marem (bihar, 09:00)
- Garajes G. - Kalaka Bs. As (bihar, 10:30)
- Malape - Xania (etzi, 09:00)
- Limpiezas Rueda - Bergara Pn. (etzi, 10:30)
- Atsedena: Adahi Etxegi

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

EIBAR ESKUBALOIA - Loyola (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

Uhartea - EIBAR ESKUBALOIA (bihar, 19:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

A. JUANTXO - Easo (bihar, 14:30)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKIBALOIA - Luberrri (bihar, 16:30)

WATERPOLOA

2. Nazionala (gi)

WP Navarra - URBAT (bihar, 16:00)

Euskal Liga (em)

Kirol albiste gehiago gure webgunean



ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

Izadi

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak ez dira



Dantzak beteko ditu kaleak gaur arratsaldean Eibarren

S.H. Herriko dantza taldeek Eibarko kaleak hartuko dituzte gaur (apirilak 24), adin eta estilo guztietako dantzarien parte-hartzearekin, Dantzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, bosgarren urtez jarraian ospatuko den jardunaldian. Eibarko Udalak eta herriko dantza eskola eta taldeek (Kezka, Kaxa, Koa Dantza, Pagatxa, Ballet Eibarres eta Eibarko Udal Dantza Eskola) elkarlanean antolatu duten jardunaldia 17:30ean hasiko da, Ipuruan eta Urkizun; 18:00etan Legarre eta Errebal izango dira agertoki; eta 18:40ean Untzagan elkartuko dira talde guztiak, emanaldi bateratua eskaintzeko.

Hainbat taldetan (Pagatxa, Estidantza, Aire Andaluz eta Jubilatua) klaseak ematen dituen Estitxu Pradoren berbetan, dantzak “bizipoz handia” ematen du, eta askorentzat eguneroko kezketatik ihes egiteko bidea da. Kaxako Marta Proletzentzat egun berezia da gaurkoa, “ikasturtean zehar talde bakoitzak bere bidea egiten badu ere, dantza beti taldean eta partekatuta bizi den artea delako”. Koa Dantzako Ibone Garciak ere hartuko du parte, Urkizutik Errebalera eta, ondoren, Untzagan. Eibarko Dantza Eskolako Jakobe Urzainekik umeen eta dantzaren arteko harremana nabarmendu du: “Emozioak nola bizi eta kudeatzen dituzten ikustea oso aberasgarria da”. Eibarko balletakoak Ipuruan, Ego-gainen eta Untzagan arituko dira. Pili Alonso irakaslearentzat, “gozatzeko eta ondo pasatzeko eguna da” gaurkoa. Ivan Rodriguezek azaldu duenez, Kubatarikoak Urkizun hasiko dira, handik Errebalera joan, eta Untzagan amaitzeko. Kezka taldeko Jokin Hazasek emango dio hasiera Untzagako ekitaldiari. Hainbeste estilo eta adin ezberdinetako dantzariak elkarrekin ikustea ederra dela dio, “txikietatik hasi eta jubilatuetara, baita aspaldi dantzan aritu eta, laga ondoren, berriz itzuli direnak ere”. Eguna biribiltzeko, herri-erromeria egingo da Untzagan (20:30ak aldera), Begi Bide taldearen eskutik.



‘Argazkilaritza Maiatzean’ ekimena aurkeztu dute

S.H. *Argazkilaritza Maiatzean*-eko egitaraua aurkeztu dute Fernando Solana Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko presidentea eta Andoni Zabala Kulturako zinegotziak, aurreko astean Klub Deportiboan egindako prentsurrekoan. Azaldu zuten, aurten ere lehen mailako erakusketak ikusteko aukera izango dugu maiatzaren 8tik aurrera (barixakua) eta, ohikoa denez, bestelako jarduera batzuk egongo dira hilabete osoan zehar, tartean Javier Sanchez-Mongeren eskutik egingo den argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra. Maiatzaren 9an (zapatua) izango da, 10:00etatik 13:45era eta 10:00etatik 20:00etara, Portalean, eta izen-ematea zabalik dago (argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi; Prezioa 20 eurokoa). Plazak mugatuak dira.



Euskal kantak ikasteko saio irekia egingo da maiatzaren 4an

S.H. Arrate Kultur Elkarteak kantu saio irekia antolatu du maiatzaren 4rako (astelehena). Euskal kanta tradizionalen doinuak eta letrak ikasi eta, elkarrekin abestuz, gozatzeko aukera egongo da. Elkartearen lokalean (1. solairuan) izango da, 19:00etan. Informazio gehiagorako, 638 284 912 telefono zenbakira deitu.



Proposamen indartsuarekin datoz Xabier Diaz & Adufeiras

S.H. Musika tradizionalaren eta berrikuntzaren arteko uztarketa paregabea hartuko du bihar (zapateria, apirilak 25) Coliseo antzokiak, 19:00etatik aurrera, bertan arituko baitira Xabier Diaz eta Adufeiras taldea. Galiziako konpositore eta musikariak hiru hamarkada baino gehiago dramatzatza bere herriko musika tradizionala arakatzen, eta ibilbide oparoa osatu eta sari ugari jaso ditu. Oraingoan, oholztan lagun izango ditu As Adufeiras de Salitre, perkusioa eta ahotsa uztartzen dituen hamaika emakumez osatutako taldea. Elkarrekin, zuzeneko indartsu eta berezia eskainiko dute. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



Coliseoko denboraldia itxiko du Musika Bandak domekan

S.H. Kalean aritzeko sasoi ailegatu zaio Eibarko Musika Bandari. Horrela, domekan (apirilak 26) eskainiko du denboraldiko azken emanaldia Coliseon, 12:00etan hasiko den saioan. Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez, “entzumen-kontzertua izango da, kalean ez genuke horrelakorik eskainiko. Bandaren errepertorio tipikoa joko dugu”. Guztira bost pieza joko dituzte, tartean, Jesus Guridiren *Mirentxu* operaren preludea.



Pucciniren ‘Turandot’ operaren proiektzioa

S.H. Giacomo Pucciniren *Turandot* operaren proiektzioa hartuko du Coliseok, gaur (barixakua) 19:30etan. Version Digital Diferidos-en eskutik ikusi ahaliko den kontzertua Vienako Estatu Operak 2023an grabatutakoa da. Pucciniren azken maisulana ikuskizun oso gisa agertzen da, sinbolismoz betea, eta antzezlan moderno baten indarrarekin. Claus Guthen zuzendaritzapean, eszenografiak giro kezkgarri eta garaikidea ematen dio kontakizunari. Aktore zerrendaren buruan Asmik Grigorian eta Jonas Kaufmann daude. Sarrerak 9 (edo 5,5) euro balio du.

‘Urban sketch’ topaketa egingo da

S.H. Eibarko Artisten Elkartek *urban sketch* topaketa antolatu du maiatzaren 16rako, zapatarako. Egun osoko jardueraz izango da: tren geltokitik abiatuta, 10:00etan hasiko dira marrazten; ondoren, Ibarkurutzeko iturria, Coliseo antzokiaren ingurua, eta Errebal plazako merkaturia margotuko dituzte parte-hartzaileek. Eguerdian, 14:00ak aldera, Untzagako jubilatuen etxean bazkalduko dute (menuak 15 euro balio du, kafea barne, eta interesdunek aurrez izena eman beharko dute). Arratsaldean, 16:00etan, Eibarko Armagintzaren Museora joango dira bisitan (doan), eta Eibarko Udalaren laguntzari esker, bertan marrazkiak egiteko aukera izango dute. Jardunaldia 18:00etan amaituko da, talde-argazki batekin. Antolatzaileek izena lehenbailehen emateko eskatu dute, bereziki bazkarirako. Horretarako, WhatsApp bidez jar daiteke harremanetan 626 127 248 (Santi) edo 657 727 157 (Josevi) telefono zenbakietan. Antolatzaileek, halaber, proposamenak jasotzeko prest daudela azaldu dute.



ERRAZA

			1	4			7	
		1	7		3			4
8								5
	5		7			8	2	
7		6				3		9
	3	2			1		5	
6								2
2				8		5	6	
	7			5	6			

SUDOKUA


3	2	9	1	4	5	6	7	8
6	4	1	8	7	5	3	2	9
7	8	6	5	2	4	3	1	9
4	5	1	7	9	3	8	2	6
8	6	4	9	7	2	1	3	5
5	1	7	6	3	8	2	9	4
2	9	1	4	5	6	7	8	3

5	7	9	2	4	3	6	8	1
2	1	8	9	7	6	5	4	3
3	6	4	1	8	5	2	7	9
8	4	1	6	5	2	3	9	7
9	2	3	4	1	7	8	5	6
6	5	7	3	9	8	1	2	4
4	9	2	5	3	1	7	6	8
7	3	6	8	2	9	4	1	5
1	8	5	7	6	4	9	3	2

ZAILA

1			7					2
	3				9			
	9	2		3	1	7		8
		7						
9	2							5 6
							3	
3		4	1	8		2	7	
			9				4	
5				3				1

LABIRINTOA



Apirilak 24 - Apirilak 29

BARIXAKUA 24

DANTZA

17:30 Eibarko dantza eskoletako erakustaldiak, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Ipurua eta Urkizu. **18:00** Legarre eta Erreal Plazia. **18:40** Talde guztien emanaldi bateratua. Untzaga. **20:30** Erromeria, Begi Bide taldearekin. Untzaga.



BARIXAKUAK JOLASIAN

18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzat jolasak. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Torrekuako parkea.

BISITA GIDATUA

18:30 Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektibora bisita, euskaraz. Portalea (erakusketa aretoa).

FUTBOLIN TXAPELKETA

19:00 Futbolin txapelketa, bikoteka. Irabazleak bildutako dirua eramango du. Izen-ematea: 10 euro (bikoteak). Beleko taberna.



OPERA

19:30 Giacomo Puccini-ren "Turandot" operaren proiektzioa (Version Digital Diferidos). Vienako Estatu Operaren emanaldia (2023). 9 euro (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 25

KUBAREKIN ELKARTASUNA

10:00/14:00 Kubara bidaltzeko oinarritzko produktuen bilketa. Toribio Etxebarria kalea.



NORTHFIT HYBRID HK

10:00/15:30 Northfit Hybrid HK Eibar txapelketa. Untzaga.

TAILERRA

10:00/12:00 Klown tailerra, helduentzat (hastapena). Ipuruako Merkatu Plaza.

ZAPATUKO IPUINA

12:00 "Elefante bitxi bat" ipuin eta txotxongilo saioa, Rosa Martinezen eskutik, 3-8 urte bitarteko umei zuzenduta. Portalea (areto nagusia).



MUSIKA

19:00 Xabier Diaz & Aduferas-en kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 26

TXIRRINDULARITZA

10:15 "Eibarko Txirrindulari Elkartearen IX. Saria" gizezkoen txirrindularitza probaren irteera, Toribio Etxebarria kaletik. Helmuga 12:00ak aldera, Urkizu pasealekuan.

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

10:00 "II. Errepublikaren eragina" bisita gidatua, Jesus Gutierrez historialariaren eskutik. Gaztelaniaz. **12:15** Bisita berbera, baina euskaraz. Untzaga.

MUSIKA

12:00 Eibarko Musika Banda. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

MARTITZENA 28

HELDUENTZAKO IPUIN-KONTAKETA

18:30 "Ongi etorri!" helduentzako ipuin-kontaketa, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Euskaraz. Portalea (areto nagusia).

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

EGUAZTENA 29

EUSKAL JAIA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepassoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkartearen bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 28ra arte

Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa. Portalea.

Maiatzaren 3ra arte

"Sormenaren Hazia", Eibar BHIko ikasleen erakusketa. Portalea.

Maiatzaren 15era arte

"Indusen ibilbideak: Himalaiatik Karatzira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argazkiak. Andretxea.

Maiatzaren 17ra arte

"El Trust Eibarres S.L." erakusketa, enpresaren mendeurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



“La familia Beneton +2”
KOMEDIA

2026/Espainia/87’
Zuzendaria: Joaquín Mazón
Aktoreak: Leo Harlem, El Langui,
Anabel Alonso
Familia zinema

1 ARETOA

• **25ean**: 22:30

ANTZOKIA

• **26an**: 17:00, 20:00
• **27an**: 19:30



“Te van a matar”
IZUA. AKZIOA. KOMEDIA.

2026/AEB/94’
Zuzendaria: Kirill Sokolov
Aktoreak: Zazie Beetz, Patricia
Arquette, Myha’la, Paterson
Joseph
Zahartzaroa/Heldutasuna.

1 ARETOA

• **26an**: 17:00, 20:00
• **27an**: 19:30



“Boulevard”
DRAMA. ERROMANTZEA

2026/Espainia/113’
Zuzendaria: Sonia Méndez
Aktoreak: Eve Ryan, Mikel Niso,
Biel Antón, Enzo Oliver
**Nerabezaroa. Maitasun
erromantikoa**

2 ARETOA

• **25ean**: 22:30
• **26an**: 17:00, 20:00
• **27an**: 19:30

 FUNEUSKADI Servicio Asesoría	 FUNERARIA MUGICA Funeraria
 TANATORIO EIBAR	 TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Ozaola, 27	Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industriaidea (Diasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	

**JAVIER MELLADO
SANCHEZ “ENANO”**
2026/04/22



Betirako elkarrekin.
Asko maite zaitugu,
Javitxu.
- ETNA eta BEA -

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MARKEL LASUEN**, martitzean 14 urte bete zenuazen eta. Asko maite zaittugu.



Zorionak **ELAIA!** Eguaztenian (hilak 29) 4 urte beteko dozuz eta! Jarraitu zure irribarriekin gure bihotzak alaitzen!



Zorionak **NIKO!** Juan zan domekan 2 urte bete zenuzen eta!



Zorionak **EKAIN!** Zapatuan 7 urte beteko dozuz. Jarraitu beti bezain irribartsu. Famelixa guztixan partez.



Zorionak **IRATI!** Atzo 7 urte bete zenuazen. Musu erraldoi bat famelixa eta lagun guztien partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **LUCIA!** Gaur 9 urte bete dozuz. Asko maite zaittugu neska haundi! Etxekuen eta, batez be, Pablo-ren partez.



Zorionak **MARKEL** eta **NAIA!** Hamalau urte zorionak elkarrekin ospatzen. Patxo potolua Anne eta Iratiren partez.



Zorionak **URKO!** Domekan 12 urte beteko dozuz eta. Milla musu eta besarkada famelixa guztixan partez.



Zorionak **AITZ!** 5 urte betetzen ditzuzu gaur-eta. Segi holan, txapeldun. Patxo haundi bat Arale eta etxekuen partez.



Simon Etxaniz Urkiola

2026/04/17

ESKERRIK ASKO une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.

- ETXEKOAK -



Susana Orrantia Gonzalez

3. URTEURRENA
2023/04/29

Beti gure bihotzetan
Maite zaitugu

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Urkizu Pasea- lekuko 9 zenbakian. 25 m². 659584892.
- Trasteroa salgai. 5 m². Arratebi- den. 666769414.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Mutil euskalduna eskaintzen da pertsonak zaintzeko, baita gauzez ere. Bost urteko espe- rientziarekin. Ziurtagiri sozio- sanitarioa. 652361868.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziekin. 643342975.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziekin. 632642320.
- Ingeniari mekanikoa eskain- tzen da auto konponketak egi- teko; larrialdikoak, konponketa txikiak eta abar. 641838914.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Edozein ordu eta egunetan. 672965658.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. 64183 4341.
- Emakumea eskaintzen da ospi- taletan dauden nagusiak zain- tzeko. Orduka. 641837075.
- Emakumea eskaintzen da na-

gusiak edota umeak zaintzeko. Baita etxeko lanetarako ere. 602715786.

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu askore- kin, ziurtagiri soziosanitario eta zainketa aringarrietako tituluarekin. Edozein leku, ordu eta egunetan lan egiteko prest. 640265606.
- Langilea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordu-tegi malgua (gauzez, asteburuetan...). Ziur- tagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetarako. 631793773.
- Emakumea eskaintzen da per- tsona nagusiak zaintzeko ospi- taletan, asteburuetan, orduka edo externa. 631425686.

4.2. Langile bila

- Ermuko hortz klinika batek higienista/auxiliarra behar du, lanaldi erdirako. Bidali zure CV hortzklínika.4@gmail.com
- Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta laguntze- ko. Beharrezkoa paperak eta titulua edukitzea. Interna beza- la edo asteburuak. Esperientzia baloratuko da. 627307168.
- Gastesi hortz-klinikan odonto- logo bila gabiltza. Interesatuak, bidali kurrikuluma mesedez: clinica@gastesidentales

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko kla- seak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Koltxoia salgai, 135x190koa, 75 eurotan. iraurgi55@gmail.com

OSASUN GIDA

FISIOTERAPEUTAK

Julian
Etxeberria, 7 688717529



muina
FISIOTERAPIA ZENTROA

Zoru Pelbikoa - Fisioterapia orokorra - Tardatukoak
Irene Alberdi Sarobe

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clinica estetica

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
Dermatologia estetikoa
Aurpegi guztietan
Botoak
KIRURGIA ESTETIKOA
Beltzuzaitza eta displastia
Liposuzketa
Kirurgia Intima



Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepanta A
623 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetikoak**

Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTOREA

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika


•Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 23453

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGOAK




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (123 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (123 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

Maidor
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK

GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOMEZ ETA ARBASALDEZ

Urkizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajek eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



Euskal dantzan ikasi nahi? Etorri **KEZKA** dantza eskolara!

tf. 605711428 kezka@dantzan.com



ISASI KALEA, 11
649881374
pagatxa22@gmail.com



Sevilla Beheko Tokian (astearteetan 9:30/10:45)
Elbarkako dantza Beheko Tokian (asteazken eta ostiral 9:30/10:45)
Areato dantza Ikaastaroa Torrekuian (ostiraletan 11:30/ 12:45)

Elbarko Nagusien Elkarteak
688 875 030 elbarkonagusienelkartea@gmail.com



SALSA ETA BACHATA EIBARRÉN
ZUMBA ETA PILATES ERE BAI!

638 78 69 45
www.kubantzari.com

Asua Eneko 7, Eibar

DANTZA UNTZAGAN, GIRO EZIN HOBEA



Untzaga Plaza 4
943 28 33 28 / 457 15 55 51
cuntraga@yahoo.es



MANTENTZE GIMNASIA DANTZA ESTUDIOA

Zezen bide 7, tf. 649 599 073

BALLET EIBARRÉS



EIBAR
Dantza Eskola
Escuela de Danza

fontibarrakola.eus
e1.anton@fontibarrakola.com
943 28 33 46



DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2026

BALLET EIBARRÉS
BEHEKO TOKIAN
EIBAR
DANTZA TALDEA
ESTIDANTZA
KAXA
KEZKA
DANTZA TALDEA
KOA
KUBANTZARI
PAGATXA
UNTZAGA
JUBILATION ETXEA

APIRILAK 24,
BARIXAKUA

17:30 IPURUA ETA URKIZU
18:00 LEGARRE ETA ERREBAL
18:30 UNTZAGA

***ORDUAK ORIENTAGARRIAK DIRA**